


GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2024ko ekainaren 17an aurkeztuko du

ARTEA IKASBIDE

Artea ikasbide

- Datak: 2024ko ekainaren 17tik irailaren 15era
- Kokapena: Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza-gunea

- Sei eta hamabi urte bitarteko 98 ikaslek, Euskal Autonomia Erkidegoko sei ikastetxetakoek, irudimen eta espontaneotasun handiko artelanak sortu dituzte, *Artea ikasbide* hezkuntza-programan egindako lanaren emaitza direnak.

- Iraganaren arrastoak paisaian, ingurumenaren zaintza, naturaren prozesuak eta animalien bizi-zikloak dira programan aztertu diren gaietako batzuk. Gainera, ikasleek hausnarketan jardun dute elkarren artean dituzten loturen eta desberdintasunen, taldeko kide izatearen sentimenduen eta elikadura osasungarriaren garrantziaren inguruan.

- 1998az geroztik, 3.868 ikasle igaro dira hezkuntza-programa honetatik. Programaren helburua da beren irudimena eta sormena sustatzea, esperimendatzen laguntzea eta, aldi berean, eskola-curriculumeko ikasgaiak indartzea.

Udazkena aditzera ematen duen eskala handiko instalazio bat adar eta hosto aurkituekin, argiarekin sortutako lanak, zaindu behar den guztia irudikatzen duen baratze batean inspiratutako mural bat, *pop up* teknikaren bidez egindako animalien ebakigarriak, gelako haurren hainbat gorputz-atalez osatutako erretratu kolektibo bat dira *Artea ikasbide* programaren edizio honetan parte hartu duten lehen hezkuntzako artisten asmamen handiko proposamenetako batzuk.

Artearen bidez sormena eta jakin-mina indartzen dira, eta eskola-curriculumeko ikasgaiei heltzeko begirada berriak sortzen dira. Aurten, ikasleek gizarte- eta natura-zientzien ikasgaiak indartu dituzte, besteak beste, gai hauekin lotutako proiektuak garatuta: iraganaren arrastoak paisaian, ingurumenaren zaintza, animalien bizi-zikloak, taldeko kide izatearen sentimenduak eta elikadura osasungarriaren garrantzia. Era berean, taldean lan egiten ikasi dute, eta hori bereziki garrantzitsua da parte hartzen duten eskoletako batzuen aniztasun kulturala kontuan hartuta.

Hezkuntza-proiektu honi amaiera emateko erakusketa bat aurkeztuko da ekainaren 17tik irailaren 15era Museoko Hezkuntza-gunean. Museoak ingurumenaren jasangarritasunarekin duen konpromisoaren ildotik, gai hori proiektu batean baino gehiagotan aztertzeke ez ezik, material ekologikoagoak probatzeko ere balio izan du erakusketak, besteak beste, zerrategiko azpiproduktuetatik datozen zuntzezko taulak, eta toxiko eta kutsatzailerik gabeko pintura. Erakusketaren diseinuak ekonomia zirkularreko irizpideei erantzuten die, erakusketa amaitutakoan museografiaren parte izan diren material guztiak birziklatu eta berrerabiltzeko helburuz.

Aurten 26 urte betetzen dituen *Artea ikasbide* programa Guggenheim Bilbao Museoa bultzatua da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordetzaren Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaritzaren laguntzarekin. 26 urte hauetan, Euskal Autonomia Erkidego osoko 3.868 ikaslek, 34 artistak eta 151 ikastetxek hartu dute parte.

Elssie Ansareo, Ibon Garagarza, Zalua Ipiña, Nerea Lekuona, Maider López eta Manu Muniategiandikoetxea artistek, Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza eta Programa Publikoen Zuzendaritzarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko sei ikastetxetako irakasleekin lankidetzan, edizio honetako sormen-proiektuak diseinatu eta dinamizatu dituzte. Zalua Ipiñak honela adierazi zuen bere esperientzia Sodupeko Eretza Berri ikastetxean: “Aurtengo esperientzia zirrargarria izan da. Ikasleen eta irakasleen parte-hartze aktiboak bideratu du proiektu osoa. Naturatik hartutako hainbat elementu txikirekin handitasuna sortzea lortu dugu, bai gure ekimenari dagokionez, bai esperimazioari dagokionez. Naturaren boterea eta aldaketak lantzeaz gain, oso garrantzitsua iruditzen zait ikusleek ulertu izana ezer gutxi behar dugula sorkuntzan aritzeko”.

Asmamen handiko sei proiektu artistiko harrigarri

Artea ikasbide erakusketan parte hartzen duten sei eta hamabi urte bitarteko 98 artistak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako sei ikastetxetakoak dira.

“Jateko moduko artea” Vitoria-Gasteizko Escolapios Calasanz ikastetxeko 5. eta 6. mailako 10 ikaslek garatu dute proiektuaren gaia da. Ikasle horiek esperientzien bidezko ikaskuntza ardatz duen programa pilotu batean parte hartu dute. Nerea Lekuona artistaren laguntzarekin, elikadurari buruz hausnartzen jardun zuten; artearen munduan hainbestetan irudikatutako gaia. Hala, historian zehar janariak eta arteak izan duten harremana esploratu zuten; koloreak eta bere nahasteek nola funtzionatzen duten ikasi zuten sasoiko fruta eta barazkiak arretaz behatuz; azukrerik gabeko galletak prestatu zituzten letren itxurarekin eta, azkenik, elementu prozesatu batzuk aztertu zituzten, elikadura osasungarriaren eta askotarikoaren garrantzia ulertzeko bide eman ziena.

Sodupeko Eretza Berri ikastetxeko 2. mailako hurrek, Zalua Ipiña artistarekin batera, urtean zehar naturak izan dituen aldaketak aztertu zituzten, besteak beste planetaren higiduragatik argian izaten diren desberdintasunak, eta urtaroen arabera naturan izaten diren aldaketak. Udazkenean erortzen behatu zituzten zuhaitzetako hostoak, eta haiekin hitzak idatzi zituzten artelan iragankor bat sortzeko. Horrela ikasi zuten hostoak erortzean eta oraindik lorerik agertzen ez denean animalia askok hibernatu egiten dutela eta lozorro moduko batean sartzen dela natura. Proiektua burutzeko, taldeak instalazio handi bat eraiki zuen adar eta hosto aurkituekin.

Etxebarriako Manuela Zubizarreta ikastetxeko baratzea sorkuntzarako eta ikaskuntzarako eremua izan zen 5. eta 6. mailako ikasleentzat. Hala, zainketa-lanaren inguruko proiektu artistiko batean lan egin zuten. Manu Muniategiandikoetxearen laguntzarekin, zer den zaintzea eta zer zaindu nahi duten hausnartu zuten eta, horrela gogoan hartu zuten familia, lagunak, maskotak, jostailuak, esperientziak edo une gogoangarriak zaintzearen garrantzia. Eskolako baratzea artearen eta

naturaren topaleku bihurtuta, ikasleek baratze sinboliko moduko instalazio bat asmatu zuten, non landareek fruituak emango zituzten, esaterako: adiskidetasuna, maitasuna, enpatia eta segurtasuna.

Bilboko Artatse ikastetxeko 6. mailako taldeak, Elsie Ansareorekin batera, naturaren prozesuak, paisaien kolore-aldaketak eta animalien bizi-zikloak behatzeko proiektu batean jardun zuen lanean, artearen bidez lasaitasunari bide emateko eta motibazioa eta frustrazioarekiko tolerantzia areagotzeko. Pop up teknikarekin animalien ebakigarriak sortu zituzten, eta eszenatokiak ere eraiki zituzten, ebakigarrien hiru dimentsioko irudiekin bizitasuna hartzen zutenak.

Trapagarango La Arboleda ikastetxeko lehen hezkuntzako 16 ikasleek iraganak paisaia eta komunitate batean utzitako arrastoei buruz gogoeta egin zuten. Ibon Garagarzarekin batera, meatzaritzari lotutako Zugaztietaren iraganari begiratu zioten. Lehenik, eskola eta inguruko paisaia marrazteari ekin zioten eta, ondoren, herriko ingurune berezi horretako eszenak margotu zituzten teknika desberdinak erabilita, besteak beste akuarela eta espraia txantiloiekin. Azkenik, meatzeetako galeriak urak hartu zituenean sortutako lakuen eskala handiko paisaia bat margotu zuten, eta horrekin *photocall* bat eraiki zuten, bertan jarrita argazkiak atera ahal izateko.

Donostiako Katalin Erauso ikastetxeko 6. mailako ikasleen egitekoa hauxe izan zen, pertsonen arteko loturei buruz eta bereizten gaituzten ezaugarriei buruz eztabaidatzea, taldeko kide izatearen sentimendua indartzeko. Maider Lópezen laguntzarekin performance bat egin zuten ikastetxeko patioan, gorputzaz eta espazioaz duten ezagutza zabaltzeko. Ondoren, gorputz-atal desberdinen siluetak marraztu, marrazki hauek elkartu eta izaki hibrido bat sortu zuten: zati guztien batuketa moduko erretratu kolektibo bat.

Bilbo-New York trukea

Bilboko Artatse ikastetxeko ikasleak eta New Yorkeko Bronxeko 86. Ikastetxe Publikoko ikasleak zenbait astez komunikatu dira posta elektronikoz eta bideo-dei bidez zuzeneko konexioan, eta horrela trukatu dituzte beren proiektu artistikoei buruzko informazioa, testu-mezuak eta beren sorkuntzen irudiak, marrazkiak eta argazkiak. Bi taldeak gaztelaniaz eta ingelesez komunikatu dira, era horretan hizkuntza eta kultura desberdinen ezagutza sustatuz.

Programan parte hartu zuten sei ikastetxeek aukera izan zuten New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-en antolatutako *A Year with Children* erakusketarako online bisita interaktiboak egiteko eta ikasle estatubatuarren lana ezagutzeko, Bosgarren Etorbideko Museoa birtualki ezagutu ahal izateaz gain.

1999az geroztik, *Artea ikasbide* programak arte-hezkuntzaren bidez Euskal Herriko eta New Yorkeko Lehen Hezkuntzako ikastetxeen artean kultur trukean aritzeko aukera eman die bertan parte hartu duten ikasle, artista eta irakasleei.

Guggenheim Bilbao Museoa martxan jarri zenetik 25 urte igaro direnean, *Artea ikasbide* programak oraindik ere agerian uzten du eskola-curriculumara artearen bidez hobetzeko duen izugarritzako potentziala. Hezkuntza-programa hori New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museoa sortu zen: Natalie K. Lieberman mezenasak jarri zuen abian 1970ean, hiriko Lehen Hezkuntzako eskola publikoetan artearen irakaskuntza kendu izanaren erantzun gisa.

***Artea ikasbide* erakusketaren inaugurazioa**

Ekainaren 17an inauguratuko da *Artea ikasbide* programari amaiera emango dion erakusketa. Bertan izango dira parte hartu duten haurrak, artistak, irakasleak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuordetzako ordezkaria eta Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza eta Programa Publikoak sailako arduradunak. Erakusketa bisitatzeaz gain, inaugurazio honetara bertaratzen direnek emanaldi original batez gozatu ahal izango dute auditorioan, Macarena Recuerda Shepherd artista plastiko eta dantzariaren eskutik. *The Watching Machine* interpretatuko du, beste leku batetik begiratzen eta inguratzen gaituen mundua hobeto ulertzen lagunduko digun lana.

Azaleko irudia:

Trapagarango La Arboleda ikastetxeko ikasleek egindako lana

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketin Saila
Tel.: +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsa irudiak:
Artea Ikasbide
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Musoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 359 008, edo posta elektronikoko bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Ikastetxea: Escolapios Calasanz, Vitoria-Gasteiz
Artista: Nerea Lekuona
Irakaslea: Natxo Oyanguren



Ikastetxea: La Arboleda
Artista: Ibon Garagarza
Irakasleak: Beatriz Berzosa, Leyre Alonso y Nerea Arego



Ikastetxea: Artatse, Bilbao
Artista: Elsie Ansareo
Irakaslea: Ainara Cortés



Ikastetxea: Eretza Berri, Sodupe
Artista: Zaloa Ipiña
Irakasleak: Amara San Vicente y Alex Salazar



Ikastetxea: Manuela Zubizarreta, Etxebarria
Artista: Manu Muniategiandikoetxea
Profosara: Mari Jose Arrieta



Ikastetxea: Katalin Erauso, Donostia/San Sebastian
Artista: Maider López
Profesora: Kristiñe Frutos

